

Tontoenak ez luke okerrago egingo

Oihane Larretxea
de la Granja

Ahotsik bai, baina botorik ez. Beharrak izan arren eta jakina, eskubideak. Hiritarrak dira, zu eta ni bezala; ordea, haien partez hitz egiten dugu helduok, haien ordezerabakitzen dugu guk. Mundua nola ikusten ote duten imajinatzeko ariketa egiten dugu, egiten badugu, eta haien begirada gure begiradatik iragazten dugu. Umeez ari naiz.

Helduok haietaz zer espero dugun hausnartzen dugu, eta egiten ditugu espektatibak eta idazten ditugu minimoen zerrendak. Baina eman al diogu buelta inoiz galderari? Zer espero du haur batek heldu batengandik? Jar gaitezen ispiluaren aurrean.

Ariketa eraman nahiko nuke hiri eredura, sinistuta, eta frogatuta, egunero koan dagoela ebidentziarik handiena. Alegia, zer enpatia falta dagoen, eta zer utzikeria haiekiko!

Zer-nolako herriak eta hiriak eraiki (nahi) ditugu? Hitz egiten da «adinekoekin lagunkoiak» diren etorkizuneko hiriez, eta zaharrak izanagatik (bereziki horregatik) ere kontuan hartu behar direla (hala behar du); sekula, baina, ez zaie ematen haurrei protagonismo hori, ez dira/ditugu subjektu aktibo bezala aurkezten. Zein neurritan txertatzen da txikienen begirada proiektuak diseinatzen direnean, aurrekontuak onartzen direnean...?

Duela egun batzuk etxe atzeko parketxoa berritu dute. Jolas eremuak hiru aldetan belazea du, bakarrean dago hormigoizko kantoizuzenak. Ergelenak ere ez luke txirrista justuki horri begira jarriko. Emaizta ikusita, tontoetan tontoena etorri zen. Gauza absurdoena izan daiteke adierazgarriena.

“Debekatuta dago baloiarekin jolastea” ez da kartel arrotza zenbait plazatan eta euria ari badu ez dago planik. Espazio seguruak, leku estaliak, jolastoki duinak. Hori ere bada hiri eredu aurrerakoa, integraziailea eta justua izatea. Beraiek ere badirelako. “Tontoenak ez luke okerrago egingo” irakur daiteke haien begi bizi-tan. Eta ez daude oso erratuta. •

Harresiak, entzutetsuak eta mutuak

Koldo Sagasti

Astelehenean Espainiako Kongresuko ordezkari batzuk Melilla bisitatu zuen, iragan ekainaren 24an Marokorekiko muga hesian gertatutako sarraskiaren inguruko frogak dokumentalak jasotzeko. Orduan, hamarnaka pertsona hil ziren mugaldea zaintzen duten funtzionario armatuen bortizkeriaren ondorioz, 23 iturri ofizialen arabera eta 72tik gora eskualdean lanean diharduten GKE-en arabera, eta 470 baino gehiago berme legalik gabe atzera bueltarazi zituzten uniformedunek.

Aste honetan Nadorreko muga kontrolera bertaratu diren diputatuak kontu tekniko zehatz bat baino ez zuten helburu, ea gizateriaren aurkako krimen hura Marokoko edo Espainiako erresu-

mako eremuan gertatu ote zen, eta ikuskatutako irudi ofizialek gezurtatu egin dute orain arte Grande Marlaska Barne ministroak itsu-itsuan defendatutako bertsioa: Espainiak ez zuela zerikusirik izan triskantza hartan.

Teknizismoak gorabehera, errealitatea da urtero milaka lagunak uzten dutela bizia hesi lotsagarri hori gainditzeko ahaleginetan, beste hainbestek Mediterraneoko itsaso-mugan uzten duten bezala. Zorigaiztoko asmakizuna nondik datozen eta nora doazen pertsona batzuen eta ez besteen bidea moztu eta hainbatetan bizitzak segatzten dituzten harresiak!

Eduardo Galianok salatu zuen behin bere idazkietako batean behinola sekulako sona handia izan zuela Berlingo ha-

rresiak; egunero zutela hizpide, goizetik gauera, orduko albistegiekin; baina hura bertan behera erori zenetik hamaika harresi eraiki direla mundu osoan, hainbesteko oihartzuna ez daukatenak. Alemaniako altzairuzko oihalaren atzetik etorri ziren AEB eta Mexikoren artekoa; Sahara okupatua basamortuko kanpalekueetatik banatzen duena; Palestinakoa, Berlingoa baino 15 aldiz luzeagoa; eta Ceuta eta Melillakoak, munta handiko sarraski bat gertatzen denean salbu, besteak bezain isilaraziak.

Zergatik ote da harresi batzuk hain entzutetsuak diren bitartean beste batzuk hain mutuak direla? Bada, akaso, urugaitarrak zioen bezala, komunikabide handiek ere inkomunikazio harresiak eraikitzen dituztelako egunero. •